

PRENTSA ADIERAZPENA

Dagoeneko jakina denez, adierazpena egin genuen herenegun, Donostiako Gotzaindegiak Juan Kruz Mendizabal apaiz jaunaren aurka egin duen prozedura kanonikoaren berri emanez. Prozedura horretan, 2001ean eta 2005ean bi adintxikikori eginiko abusuengatik (ukipen desegokiak egiteagatik) erruduntzat joa izan zen.

Prensa ohar horretan esaten zen, nola jaso genuen martxoan bi kaltetuen salaketa, Elizaren justiziara jotzea erabaki zutelarik, maila zibilean salaketa jartzeko gure gonbidapena baztertuta. Egun 30 urteak gaindituak dituzten bi persona heldu hauen eskabidea onartua izan zen, horretarako duten eskubidea errespetatuz.

Prozedura kanonikoa buruturik, Juan Kruz Mendizabal jauna errudun joa izan zelarik, bere arduretatik kargugabetua izan zen eta bere ministeritza era tutelatura mugatzen zion sententzia jaso zuen, terapia psikologiko eta espirituala jasotzeko eginbidea eman zitzaizolarik.

Eguberri aldi honetan, bi biktimek gertatutako guztia jendaurrean salatze erabakia hartu zuten, hirugarren kasu bat egon zitekeenaren zurrumurrua zabaltzen hasia zela eta. (Oraingoz baieztatua ez dagoen balizko hirugarren kasu hau dela eta esan beharra dago, gotzaindegiak beharrezko diren bideak egin dituela egiaztatu ahal izateko, balizko kaltetuaren testigantza zuzenik jaso ezin izan duelarik. Edonola ere, fiskaltzarekin harreman zuzenean gaude, beraren eskuetan jarri ditugularik gure ikerketan jasotako datu guztiak).

Ezkutatuta egon zitezkeen beste balizko kasuak azalertzeko gogoz bi biktimek beraien kasua publiko egitea erabaki zuten unean, aurrez isilik egoteko egin ziguten eskabidetik aske sentitu ginen eta geuk ere prentsa adierazpena kaleratu genuen berehala, Juan Kruz Mendizabal apaiz jaunaren aurkako prozedura kanonikoaren berri emanez.

Bada, gertakariak gainera etorri zaizkigu eta gaur goizean bertan gotzain honen aurrean salaketa berri bat aurkeztua izan da Juan Kruz Mendizabal jaunaren aurka, 1994. urteko antzeko gertakariengatik. Orduan gertatutakoak zehaztasun handiz kontatu ditu salatzaileak, esandakoari egiantzekotasun handia ageri zaiolarik.

Salatzaileak gogoia adierazi du bere kasua bai zibilki bai elizaren aurrean aurkezteko; horregatik gaur goizean bertan Fiskal Nagusiarekin, Galparsoro jaunarekin, harremanetan jarri naiz, urrengo pausoak nola eman elkarrekin adosteko.

Gure aldetik, eta oraindik epaitua izan ez den kasu berru honen errugabetasun ustekizuna baldintzatu gabe, baina kasuaren egiantzekotasuna kontuan izanik, dekretua eman dut neurri prebentibo hauek hartuz:

- Mendizabal Irizar apaizari bere ministeritza era publikoan gauzatzeko debekua.
- Monasterio batean bizitzeko obligazioa, gotzainari baimena eskatu beharko diolarik bertatik atera ahal izateko.
- Dagoeneko ari zuen bidelaguntza espiritualarekin eta terapia psikologikoarekin jarraitzeko eginbidea.
- Pertsona heldu bat aurrean ez bada adintxikikoekin edonolako kontaktua izateko debekua.

Une honetan nire eskabide gartsua egiten dut, Elizaren baitan gertatu eta ezkutuan egon daitezkeen adintxikikoen aurkako edonolako sexu abusua azalera daitezen, baita beste esparruetan gertatutakoak ere. Uste dut gertakari hau aukera paregabea dela horretarako, eta nire uste sendoa adierazi nahi dut, pauso hau oso ongaria izango litzake guztiontzat: biktimentzat, sendatzen laguntzen dielako; erasotzaileentzat, bere bizitzaren gezurrari mozorroa kendu eta bihotz-berritzera deitzen dielako; Elizarentzat, guztioi sakoneko azterketa eskatzen digulako; eta gizarte osoarentzat, inor libre ez dagoen arazo baten aurrean gaudelako. Egia ona da guztiontzat. Zenbait sektorek Elizaren egitekoa belzteko erabiliko du gertakari hau, baina ez gara beldur. Nazaretoko Jesusek esandako moduan: “Egiak aske egingo zaituzte”. Berririo diot haur eta nerabeen xalotasuna babesteko gure konpromiso argi eta garbia adierazteko unea da, baita biktimei eta beraien familiei gure gertutasuna agertzeko ere. Egiari zor diogun maitasunaren testigantza egiteko aukera paregabea dugu. Gu ez gara Jainkoaren Hitzaren jabeak, beraren zerbitzariak baizik.

Egun hauetan entzundako zenbait komentarioren aurrean, honakoa argitu nahi dut:

1.- Elizak badu zuzenbide berezko eta propioa, zuzenbide kanonikoa deritzana; eta, horregatik badu bitarteko juridiko aski, eskumen penal eta zibilari gehigarri zaizkionak, fededunei ondasun espiritual nahiz materialak kentzeko zigorrak eman ahal izateko (can. 1312 §2 CIC), arduraz eta askatasun osoz tratatuz eliz komunioa zauritzen duen delitu oro. Gaitasun hau aitortua dago Elizaren eta Estatuaren arteko harremanetan eta ez Epainian bakarrik, nazio demokratiko ia guztietan baizik.

2.- Elizaren legedi partikularrean bada, gainera, berezitasun bat, beste arautze penalak baino estuago egiten duena: besteak beste delituen preskribatzerako epe luzeagoak ditu, eta preskribatze horiek indargabe utzi daitezke gainera.

Argibide hauek emanik, hauxe azpimarratu nahi dut: Elizaren moralarekin eta diziplinarekin bat etorritik, neure izenean eta elizbarrutiko elkarte osatzen duten fedun guztien izenean gaitzespen irmoa eta sendoa adierazten dut adintxikikoen aurka eginiko edonolako sexu abusuen aurka, areago abusu hori apaiz batek eginga bada. Barkamena eskatzen diet Elizaren izenean biktimei eta beraien familietakoei, gure baitan sufritu duten minagatik. Gertatu dena guztiz kontrakoa da ebanjelioko aginduekin, Eliza, askatasun esparrua izatera deitua baitago eta bertan ziurtasun osoz garatu ahal izateko oso-osorik, giza heldutasuna eta heldutasun espirituala iristeko dugun bokazioa. Horregatik, eliza partikular honetako artzain bezala ez dut etsiko

adintxikikoen aurka egindako abusu guztiak justiziaz eta zuzentasunez tratatzeko nire ahaleaginean. Ez diogu gure eginahalari utziko gaitz hau erabat errotik kendu arte.

Nire eskerrona adierazi nahi diot Erromako Aulki Santuari, eskuartean dugun hau kudeatzen laguntzen ari zaigulako. Geure esperientziarekin ikusi ahal izan dugu, nola gai heuetan Aita Santuak emandako neurriek lagundu diguten sendotasunez jokatzeko, baina baita orekaz eta mailaz mailako pausoak emanez ere.

Utzidazue azken hitza Elizaren fededunei zuzentzen. Igandeko homilian zentzuz eta itxaropenez betetako hitza zuzentzeko asmoa dut. Hunkitu egiten nau egun hauetan zuek otoitzean ikusteak. Ez zalantzarik izan: zuen otoitza emankorra izango da; jakizue, jada izaten ari dela.